


Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

ADNan izandako galerak, gure eboluzioan gakoa

GIZAKIAREN EBOLUZIOA nolakoa izan den jakiteko, gehienetan antzeko espezieekin konparazioa egiten da. Stanford Unibertsitateko (AEB) Gill Bejerako eta David Kingsley ikerlariak martxoaren 11n *Nature* aldizkarian argitara emandako artikuluan, gizakiaren eta tximino handien artean dauden desberdintasun batzuen zergatia azaldu dute. Hain zuzen ere, bi ezaugarri aztertu zituzten: batetik, gizakiaren zakilean keratinazko ileak desagertu izana eta egun den gorpuzki leuna bilakatzea, eta bestetik, garuna askoz ere handiago bihurtzea.

Ugaztun askoren zakiletan biboteko ileen antzekoak topa daitezke; horien helburua omen da emearekin hobeto akoplatzea eta aurretik beste



WWW.BUHOHOJO.DE

ar batek utzitako esperma garbitu ahal izatea. Gizakiarengan monogamiarako joera indartu ahala, ADNzko hainbat sekuentzia ezabatu eta ondorioz zakil leuna sortu da. ADNzko sekuentziak galtzeak beste ondorio bat izan omen zuen: neuron sarea handitzea eta beraz garuna ere bai.

Ikerlariak, esandakoa frogatzeko, saguengan

egin dituzte galdutako sekuentzia genetikoen testak. Baina honelakoetan beti galdera bat geratzen da airean: emeengan ez al da sekuentzia genetikoen galerarik izan? Eta baiezkoan, ez al du inork ikertu zein izan den galera horren ondorioa? Batzuetan, badirudi gure espezieaz ari garenean beti arrez ari garela, emeak existituko ez balira bezala.

Eskaner mugikorren bidean urratsa

NEW YORKEKO Brookhaven National Laboratory delakoan David Schlyer ikerlariak zuzentzen duen taldeak eskaner mugikorren alorrean urrats garrantzitsua eman du, saguen begi eta belarrien artean mini-eskanerra kokatuta. Jakin badakigu zerbait eskaneatu ahal izateko zerbait hori geldirik egon behar dela; beraz, izaki bizidunok mugimenduan ari garela ezin gure parametroak neurtu. Oztopo hori gainditzeko lehen pausoa da mini-eskaner hau. Saguek ez dute estresik jasan gailua eramateagatik; hurrengo urratsa beste animalia batzuekin probatzea izango da.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Gehiegizko gantzaren aurkako borroka

EHUko Arrate Lasa ikerlariak, amaitu berri duen doktorego tesian, giza-gantzarekin zerikusirik izan dezaketen substantziak aztertu ditu. Horien artean *resveratrol* izenekoak izan ditu emaitzarik interesgarrienak, gantza murrizte aldera. <http://ttiki.com/24690> (Gaztelaniaz)

Itsasontzi batean zerumugari begiratzea lagungarria da

Izenburuan esandakoa ez da gaurkoa, orain mila urte itsasontan bidaiatzen zutenek ere zerumugari begiratzea gomentatzen zuten, zorabioari aurre egiteko terapia modura. Baina egia al da hori? Edo uste hutsa baino ez? Bada, badirudi egia dela.

<http://ttiki.com/24691> (Gaztelaniaz)

Bizkarrezurreko lesioak konpondu ahal izateko bidea

Bizkarrezurretako lesioak oso bortitzak izaten dira, eta ondorioak, askotan, atzerazinezkoak. Baina badirudi minbiziaren aurka erabiltzen den farmako batek aukera berriak eskain ditzakeela aipatutako lesioak sendatze bidean.

<http://ttiki.com/24692> (Gaztelaniaz)